

“Black-Out” poesia-lehiaketaren oinarriak

1. 2021-2022 ikasturtean Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikula ofiziala duten ikasleak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara.
 2. Lanak, originalak eta argitaragabeak, IHEOko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira: alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiera.
 3. Lanek testu soila edo testua eta irudiak izan dezakete, eta irudiak egilearenak berarenak edo jatorrizko testuarenak izan daitezke. Dena den, testuen literatur kalitatea eta irudiekin (izanez gero) duen lotura sarituko dira beti. Beraz, lanak saritzeko ez da soilik irudien kalitatea kontuan hartuko.
 4. Lanak “Black-out poetry” modalitatearen arabera egin beharko dira. Ez da onartuko ezabatze-teknika eta/edo irudi bitartez ia aldatu ez den eta jatorrizkoaren oso antzekoa den testurik.
 5. Iturri hartutako testuaren luzera edozein dela ere, lanek orrialde bateko luzera izango dute gehienez.
 6. Egile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu aurten matrikulatuta dagoen hizkuntza bakoitzean. Egile berak hizkuntza batean baino gehiagotan saria lortuko balu, epaimahaiak modalitate bakarrean emango lioke eta hurrengo finalista sarituko luke.
 7. Lanak sinatu gabe aurkeztuko dira Atezaintzan (beheko solairuan) zuzuenan, edo dagokion departamentura zuzendutako gutun-azal baten barruan (modalitatearen hizkuntza baino ez da idatziko horretan). Gutun-azalaren barruan beste txikiago bat, itxita, sartuko da eta ikaslearen izen osoa, telefonoa, eta matrikulatuta dagoen hizkuntza eta maila adieraziko dira bertan. Erabilitako testuaren iturria (egunkariko artikulua, iragarkia, nobelaren zatia eta abar) eta obraren izenburua (izanez gero) gehituko dira.
 8. Hurrengo sariak (*) ezarri dira:
 - Hizkuntza bakoitzean 60 €-ko lehen sari bat eta 40 €-ko bigarren sari bat.
 - Kategoria absolutuan 150 €-ko lehen sari bat.
- (*) material didaktikoa erosteko txartela da
9. Lanak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 24tik otsailaren 28ra arte izango da.
 10. Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko departamentuetako irakasleek osatuko dute epaimahaia, eta originalen kalitatea baloratuko dute eta hizkuntza bakoitzeko saritutako lanak aukeratuko dituzte. Ondoren, lehiaketaren irabazle absolutua aukeratuko da modalitate horretan saritutako lanen artean. Epaimahaikideen erabakia apelaezina izango da. Sariak eman gabe gera daitezke.
 11. Nahi dutenek originalak berreskuratu ahal izango dituzte epaia eman ondoren.
 12. Sarituei jakinaraziko zaie epaimahiaren erabakia.
 13. Saritutako obrak *Vox Populi* aldizkarian argitaratuko dira. IHEOk eskubidea du obrak beste sustapen-kanal batzuetan hedatzeko, hala nola prentsan eta sare sozialetan.
 14. Obrak lehiaketara aurkezteak parte-hartzaileek oinarri guztiak onartzen dituztela dakar. Oinarriak betetzen ez dituen edozein lan kanporatu ahalko da.